

KULTUR-ETXEAK EGUNGO GIZARTE PEDAGOGIAREN EREMUAN

Fito Rodríguez Bornaetxea

Hezkuntz Zientzietan Doktoraduna.

Euskal Herriko Unibertsitatean Irakasle

«Lanak eta langileak errespetoa merezi duten tokian kultura berria hasten da».

(Maksim Gorki)

1. KULTURAREN DEFINIZIORAKO HURBILKETA

Kulturaren definizioak ugariak izan badira ere (1), edo agian arrazoi horrexegatik hain zuzen ere, egun arlo horretaz aritzeko azkoz zehatza, egoki eta erabiliagoa dugu *gizarte-lana* adierazpena (2).

1.1. Historiari begiradatxo bat:

Halere klasikoki, eta XVII. mendeaz geroztik bereziki, Mendebaldarra deitutako kultura gizarte honetako gizakumeok Izadiaren aurka eraikitako bizi-moldeen arauera ulertuta izan da. T. Hobbesen *Leviathanengandik* aurrera (1651) gizakien zeregin kultua natur legeetatik bereiztean datza. Edo beste eraz esanda naturala den «indar gataska» alboratu ahal izatea arrazoia dela medio. Giza kultura garatuko daberaz, gizaki guztion indar ahalmenak bakar batzuen esku uzten direnean. Hori dela eta geroxeago azalduko dugunez, kultura zein gizarteari buruz ohizkoak bihurtu zaizkigun planteamenduetan eskizofrenia nabarmena aurkitzen dugu. Hau da, Gizartea eta izadiaren arteko antinomiaren hamaika aurpegiak.

Indarraren monopolio honetatik sortuko dira, besteak beste, iraultza burgesek (3) eragindako «unibertsalismoa»ren

itzala kulturaren eta «despotismo ilustratua»ren erabilera gizarte antolamenduetan.

Kultura nahiz Hezkuntz planeamentuetan hedatutako gizarte portaera hauek modernitate (progresuaren zentzuna) eta ezagutza mailan legitimatzen ziren, edota beste hitzetan esanda eta gizarte osoari zegokiona gogorazteagatik, idazketa zein irakakurketaren poderioz sortutako mailaketen arauera justifikatu egiten zen. Ezalfabetasun gatzesi egingo da («inkulto eta ezjakina bezala hartzen da horretaz ez dakiena») eta ondorioz, «agrafoak» jotako gizarteak behe-mailako, atzeratutako kultur giza izango dira harturik.

Beraz, XIX mendean ezagutzen ez ziren datuetan (Europar ohizko sistematik at egon zitezkeen idazketa eta ikurren egoera) oinarritutako teori hauen esker azpimarratu ohi zen gaur arte Mendebaldeko kultur-ereduaren «unibertsalizazioa» (4)

1.2. Kulturaz ulertu ohi denarena sinopsi gisa:

Orain arte aipatutakoa premisa izanik erraz uler daiteke sortzez europar bizimodua izandakoaren arrazonomendu motak (etiketa zein zientziazkoak) eta estetika, kulturaren paradigma bakartzat hartzearena.

(1) Kroeber-Kluckhohn, *Culture: A critical Review of Concept and Definition* (1952).

(2) «La polisemia del concepto de cultura ha conducido a que algunos antropólogos desechen el término por su vaguedad e imprecisión o lo sustituyan por el de sociedad o el de adaptación.» J. Azcona (1988).

(3) Britaina Handia, Ameriketako iraultza anticolonialistak eta Frantziakoa (1789).

(4) «La concepción eurocentrista viene determinada por el hecho de que la ciencia europea del siglo XIX y comienzos del XX no disponía aún de datos precisos y objetivos acerca de la cultura de los pueblos que carecían de escritura propia». I. Savranski (1988).

Adierazitako parekotasun hori (Kultura=Mendebalde edota Europar biziera) oraindik oso hedatua badago ere mende honetako hasieratik hona aldatuz joan da. B. Malinonovski etnografo ingelesak Trobriand irletatik eginiko ikerketak argitaratu eman zituen geroztik (1914) eurozentrismoa hasi zen erortzen. Aldez aurretik erabilitako antinomiak (herri basatiak-hern kultuak) porrot egitearekin batera herri bakoitzaren nortasuna eta izaera ezberdinen ezaugarriak azalaraztera zuzendu ziren antropologoek azterketak (M. Eliade, A. GUSDORF, eta beranduago C.Lévi-Strauss eta abar).

Oinarrian E. Taylorren «ikerketa deskribatzailea» egonik (1871) Kulturari buruzko ihardueretan hiru bide ezberdinduko dira:

- Kultur Antropología (C. Kluckhohn)
- Gizarte egituren ikerketa (C. Lévi-Strauss)
- Kulturología (O. Spengler, A. Toynbee, F. Northrop, etab. ...)

Denak «Unibertsalizazio»aren aurkakoak eta, neurri handi batetan «taylorzaleak», badira ere, hau da deskripzio hutsa besterik ez badute egin nahi, hirugarrena izan daiteke kultura zentru itxienean hartzen duena. Bai Spenglerren pesimismoa (Kultur europarraren ustelkeria dela eta) baita Toynbee, Benedict edota Herskovitsen «historiosofietan» herri ezberdinetako kultura sistema isolatu gisa ulertzen denez ezin da esan kulturen artean inongo eraginik aurki daitekeenik. Taylorren ikuspegia, nonbait eta nahita, erabat estatikoa baita.

Aipatutako baldintzak kontutan edukiz aise uler dezakegu ere A. Schweitzer ikerleak sortutako sintesia: Mundu osorako eredu izan nahi du Europako kultura hiltzera doa arrazionalkeria dela medio. Bizi ahal izateko premiazkoa du berri sentimenduen bereganatzea. Berrito ere alemaniar hizkuntzalari erromantikoen garaian bezala goian agertutako eskizofreniaren erreferentziarekin topo egiten dugu, kultura sentimendu ala arrazoa da?, komunitate ala gizartearen emaitza?, elkartasuna ala erakundetzearen ondorioa...?

Ildo honetatik joanda urrats sendoa suposatzen du Arnold Hauserrekin proposatutako kontzeptua, alegia «jendetza kulturarena». Bere aburuz Mendebaldean eginiko kultur eta gizarte lanak guztiz kontsumoaren alde direnez munduaren zatiketa areagotzen dute nahitaez. Kultura, bada, gizarte lan gisa ulertu beharra dago kontzienteki ala bestela dagoen. Gizarte beraren ezinbesteko bereizketaren alde egoten da lanean.

1.3. Kultur ikerketen gaurkotasuna:

Hauserren inguru teorian gaurkotasunez beterik aurkitzen ditugun ikerlengan (M. Weber, G. Lucács, G. Simmel edota K. Mannheim...) halere ohizko «manikeismoa» agerian dago.

Spencerrek hitzegingo digu gizarte industrialak eta gizarte militarri buruz; Tönniesek, berri, komunitate eta gizarteaz (5); Weberrek berak tradizio eta arrazoiaren artean aurkituko du kontraesana; Durkheimen elkartasun mekanikoa eta organikoa aitatu ditu... Funtsean eta azterketa guztietan nagusitu den gizarte mota honen eskizofreniaren aipamena.

1.4. Ondorioak:

Eta eskizofrenia esaten dugunean adierazten ari gara kapitalismoaren eraginak gizarte zein gizabanakoen barne-egi-

tura eta konzientzia lortu duen islada. (6) Hau da, hastapenetan gizabanako beraren isolamendurako kulturaren eraikuntza eta era berean, subjektutasunaren legitimazioa gizarte-sareen kaleetan.

Halere argiagoa uzteko puntuz-puntu joan gaituzten: «Unibertsala» izateko bokazioak munduan zehar zabaldutako mendebaldar kultura eskizofreniko honen aztarnak J.J. Rousseauk formulaturiko «gizarte hitzarmenean» datzate non «gizabanako askeak» erabakitzen dituen gizartearekiko eduki beharreko harremanak. Beraz aukera libre eta arrazionalen oinarritu egiten omen dira gizarte mota horri dagozkion kultur egitura zein adierazpenak. Baina, eta orain arte esan bezala, gizarte arrazionaltasun nahiz askatasun haien atzean aurkitzen da:

- Naturaren aurkako jarrera.
- Indarraren monopoliorako norbanakoaren derrigorrezko ordezkapena.
- Gizartea zuzentzen dutenen «despotismo ilustratuaren» legitimazioa.
- Gizabanakotasunaren etengabeko azpimarraketa inongo kontrolik gabeko gizartea indartzu doan bitartean.
- Parteartzearen ordezkari kontsumo hutsaren eskeintza.
- Bizitzaren eredu posible bakarra eta inposatzailea.

Gizarte horren inguruan sortzen diren antolamendu nahiz adierazpen kulturalak ordea, ez dira aipatutako hildotatik soilik joaten. Aitzitik, nahiz eta Sistemaren kultur ikerleek horretaz erreparatu nahi ez eguneroko bizitzan inonizten saiatu izan diren kulturatik at beste bat egon badago, bestela Euskal-Herriaren kasua ikuskaratzea besterik ez dago.

2. EUSKAL GIZARTEKO KULTUR EGOERAREN DIAGNOSI BATERANTZ

Honeraino adierazi dugun gisa kulturari buruzko adituegan zein beraien arauera herri —pentsamenduan hedatutako erizietan ere, azpimarratu izan da mendebaldar bizieran gaurkotasuna ikuspegi estatiko batetik ulerturik.

Egun, berriz, kultur ikerketak ezarriak bezain dinamikoak egiten direnean (7) gure egoera aztertzeko aipatutako teoriak ez dute balio handirik erakusten, besteak beste euskal-kultura «agrafoa», periferikoa eta egituragabea hartua izan baita. Hau da «kultura inposatzaile» delako horren ikuspegitik mesprezatutako «behe-kultura».

Jean Baudrillardaren hitzak erabiliz esan genezake gure kultura dela beste nonbaitetik eragingako «producere», «educere» eta «seducere» batzuen ondorioa (8). Hau da, desio produkzioaren bidezko kultur-kolonizazioa (9). Geure kontroletik kanpo aurkitzen den irudia zein zaraten kultur-salerosketa (10).

Beraz, diagnosi honetatik abiatuz badago kulturaren inguruan dauden azalpenen jorraketa eta tajuketa egiterik. Hona hemen.

(6) Deleuze-Guattari. *L'Anti-Oedipe Capitalisme et la Schizophrénie* 1972.

(7) Havelock, E.A. (1978) - Lotman, J.M. (1979).

(8) Baudrillard, J. *Oublier Foucault* 1977.

(9) Guattari, F. 1981.

(10) Mc. Luhan, M. 1977.

(5) Gemeinschaft-Gesellschaft

Kultura inposatzailea	Behe-kultura deritzana
- Izadia eta Gizartea kontrajarriak agertzen dira - Gizarte egitura ordezkapenetan oinarritu egiten da. - Unibertsaltzat jotzen du bere burua. - Ezagutzaren arauera antolatuta; «despotismo ilustratua»(11). - Abanguardista eta, era berean, lujo gisa harturik. - Espazialki giltzapetua (Museo Arte galeri, liburutegiak etab.) (12) - Gizabanakoari begira egina - Kontsumora zuzenduta - Merkantzia - Agerian ez dauden kontroleek diseinatu eta bideraturik. - Pasibitatearen zalea. - Irudia kultur produktorako eredu gisa hartzen duena (13) - Mailakatua. - Geografian ierarkikoki kokaturik (hiriburuetan etab.). - Derrigorrez banandua, eskizo	- Kultura inguruarekiko harremanetan garatzen da. - Gizabanako guztien parteartzea ezinbestekoa da. - Kokatua, ezarria. - Herri-Jakintza aintzakotzat hartzen duena. - Errotua eta eguneroko bizitzan garatzen olean. - Gizartean hedaturik. - Gizartaldea helburu. - Lana-olgetaren orekakatzailea. - Aisia, ez denbora librea. - Denon artean eramana. - Jarrera eraginkorrak behar dituen (Kritikoa). - Bizierak kulturaren motorra izanik. - Orokorra - Geografikoki hedatua: (herri zein auzoetan). - Komunitate osoaren emaitza

Euskal-Herriko egoera kulturalen bada, isladatu egin zaigu norbanakoaren gaineran eraikitako mendebaldeko gizarte eredu kapitalista eta, ondorioz, bertako kultura, bertan historikoki sortutako gizarte lanak, bizieren sareak mesprezaturik izatetik aparte folklorikerira kondematurik izaten dira. Bizimodu bakar gisa irentsi egin nahi izan digute, ordea, moduan zeha aipatutako kultura inposatzaileak zabaldu nahi duena (14).

Funtsean kontraesana nabarmena da oso. Alde batetik kultur instituzionala soilik, non parte hartzeko askatasuna erakundeetan delegatu beharra dagoen, eta bestetik herri mugimenduaren eraginez sortutako adierazmen askea. Gure gizartean aipatutako ildo bikoitza honen antzera, esan bezala, ha- maika adibide zehatz eman genezake. Gizarte Pedagogiaren aldetik luzatu nahi da besoa bien arauera inongo aurreritzi- etan oinarritutako euskal kultur eraikitzen joateko. Batetik, egun so- fri arazten diguten erakundeen kultura inposatzailean lagun- tza kritikoa azalduz eta bestetik herriaren kemenaz sortu doa- zen esperientziak (orain arte «behekulturatzat» harturik izan direnak) babestu eta indartuz joan ahal izateko ere.

Gizarte berria eraikitzeko kulturaren zutabea tinko bezain irmo egon beharra dago, horretarako hain zuzen sortu zen kul-

tur-etxeen inguruan eragindako gizarte lana, baina hori jarraie- an jorratuko dugu.

3. KULTUR-ETXEAK

Beste nonbait honetaz aritu behar izan badut ere (15) oi- narrian plantelaturako kontraesana horixe besterik ez da, herri kemenaren ordezkantza burokratikoa eta kultur herritarren ar- teko autoantolaketarena. Gizarteak bere baitan duen kudeake- tarako ahalmenaren etengabeko galera ikuspegi ezberdinetat- ik izan da aztergai (16) baina adierazitako kontresan horrek zutik dirau, alegia kultur ekipamenduen diseinuak gizarte di- namikari eragin diezaiokeen noziketarena.

Horregatik hain zuzen ere edozein ekipamenduz aritzera- koan, eta kultur-etxeen kasuan bereziki honeko ikuspuntu hauek kontutan eduki behar dira:

- Herri ekintzetarako osagarriak izan behar direla, inola ere beraien ordezkaritza.
- Herri antolaketarako eustarria izanik.
- Betetzen saiatzeko gizarteetan sortzen diren elkarketa- rako oztopo zein hutsuneak.

(11) Ikus Ezagutza eta Jakintza kontzeptuak bereiztu ordurako Mi- chel Serres Irakaslearen artikulua in *Douce Lecons de Philosophie*, Le Monde, 1982
(12) Kultura monumentalari buruz ikus Foucault, M. in *Esprit* aldizka- rian, 1968-ko Maiatzan 850/874 or.
(13) Garcia Calvo, A. (1980)
(14) Mc. Luhan, M. *La Galaxia Gutenberg*. 1972

(15) Rdgz. Bornaetxea, Fito. «Kultur-Etxe zein Herri-Heziketari buruz- ko zenbait gogoeta» in *Juventud, Empleo y Tiempo Libre*. UPV/EHU 1989.
(16) Th. Veblen-engandik (1899) –The Theory of the Leisure– J. Dumadezioren ikerketak plazaratu arte (1962) —*Vers uime civilisation du loirs*.

Ilido honetatik joanda aintzina edota kultur tradizio berrien alboraketa ezinezkoa bihurtzen zaigu. Aitzitik, kultura gizarte-lan gisa definitu baldin badugu, gizartearen parte-hartzea izan behar da lortu beharreko lehen helburuetarikoa. Hortik aurrera, berriz, gizarte mota honek eragindako hutsunei erantzuna ematea posible litzateke baina goian aipatutako baldintza kontutan hartzen ez den bitartean ezin izango dugu esan ere kultur lana egiten ari denik.

Hau da, kultur-etxearen ereduak irtenbidea eman nahi izan die era berean bai tradiziozko gizartearen urtuketari baita gizarte postindustriailak elkartze ahalmenean sortutako premia berriei ere.

Guzti honetarako tokian tokiko esperientzia nahiz teoria aunitz azaldu eta azalduko dira. Ez da haxe, agian, zehaz-

kizun gehigirako leku aproposena, are gehiago zehazkizun horiek dagoeneko eta behar diren lanetan eginak duadenean (17) baina bai ordea Hezkuntzaren Teoria eta Historiaren Ikuspegitik Kulturaren esanahia zein gizarte lanerako zenbait jarrera jorratzeko. Haxe izan da, eta ez besterik, agertu beharrezko zeregina lan honetan zehar. Zer esatekorik franko azalerazi gabe geratzen bada ere azaldutakoak falta den hori ulertzeko bidea ematen igulakoan nago. Beraz, hain zailak diren ihardueterako inongo errezeta falturik saldu nahirik, baina era berean, eguneroko praktikak nozitutako zenbait giza ikuspegi berrekarriz, hemen bukatzen da, irakurle, kultura, kultur-etxeak edota gizarte lanari buruz aritzeko oinarritzat izan daitezkeen kontzeptu xume batzuen azalpena.

(17) Salvá Royuela, J. *El Centre civic com manifestació d'animació socio-cultural al camp de l'educació permanent no formal d'adults*. Universitat de les Illes Balears-etan 1986an irakurritako lizentziaturako tesina.